





*Arabako Campuseko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean gauzatutako jarduketak*

# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Ikasleentzako prestakuntza (1)

***ONLINEKO IKASTAROA:*** ***Bat egin nahi duzu iraunkortasunaren erronkarekin?***

**Helburua:** Graduko ikasleek iraunkortasunaren alderdi garrantzitsuenak ikuspegi praktiko batetik ezagutu ahal izango dituzte.

**Iraupena:** 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

**Edizioak:** Seigarrena. 2021/02/08 - 2021/03/26
Zazpigarrena. 2021/10/04 -2021/11/15

**Parte-hartzaileak:** 157 ikasle ( %72,61 emakumeak, %26,75 gizonak eta % 0,63 ez-bitarrak)

**Arrakasta-tasa:** % 55,3

Informazio gehiago



# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Ikasleentzako prestakuntza (2)

***ONLINEKO IKASTAROA: 2030 Agenda gradu amaierako lanetan sartzea***

**Helburua:** Graduko 4. mailako ikasleek 2030 Agendako tresnak identifikatzen ikasiko dute, GrALan txertatzeko.

**Iraupena:** 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

**Edizioak:** Laugarrena: 2021/02/15 – 2021/03/25
Bosgarrena: 2021/10/18 – 2021/11/29

**Parte-hartzaileak:** 108 ( %69,4 emakumeak, %30,6 gizonak)

**Arrakasta-tasa:** %60

Informazio gehiago



# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Ikasleentzako prestakuntza (3)

### ONLINEKO IKASTAROA: *Finantza etikoak*

**Helburua:** Finantzetan etika, iraunkortasuna eta elkartasunaren ikuspegitik hasi nahi duten ekonomia eta enpresa adarreko gradu eta graduondoko ikasleei zuzendua.

**Iraupena:** 25 ordu (ECTS kreditu 1).

**Edizioak:** Bigarrena. 2021/02/08 - 2021/03/18
Hirugarrena. 2021/10/04 - 2021/11/15

**Parte-hartzaileak:** 135 ( %58,5 emakumeak, %41,5 gizonak)

**Arrakasta-tasa:** % 48,5

Informazio gehiago



# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Ikasleentzako prestakuntza (4)

### *ONLINEKO IKASTAROA: Garapenerako unibertsitate lankidetza*

**Helburua:** Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan hasi nahi duten graduko ikasleei zuzendua.

**Iraupena:** 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

**Edizioak:** Seigarrena. 2021/02/01 - 2021/03/12
Zazpigarrena. 2021/10/13 - 2021/11/22

**Parte-hartzaileak:** 159 ( %55,97 emakumeak, %44,03 gizonak)

**Arrakasta-tasa:** %30

Informazio gehiago



# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Ikasleentzako prestakuntza (5)

### *ONLINEKO* IKASTAROA: Alternatiba digitalak kontatzen

**Helburua:** UPV/EHUko graduko eta graduondoko ikasleak, Gizarte eta Komunikazio Zientzien adarrekoak, bai eta Osasun Zientzietakoak ere, bideo-aktibismoan eta Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan hasi nahi badute.

**Iraupena:** 25 ordu (ECTS kreditu 1).

**1. edizioa:** 2021-09/11/11/2021

**Parte-hartzaileak:** 24 ( %66 emakumeak, %34 gizonak)

**Arrakasta-tasa:** % 4,1

[Informazio gehiago]



# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Ikasleentzako prestakuntza (8)

**IKASTARO ERDIPRESENTZIALA: Garapena, Lankidetza eta Trantsizio Ekosozialerako Teknologiei buruzko XXII. Mintegia**

Norentzat: garapenerako lankidetzarekin eta trantsizio ekosozialarekin lotutako oinarrizko ezagutzak eskuratu nahi dituzten pertsonentzat, prestakuntza edozein izanik ere; gizarte eraldaketarekin lotutako esparruetako gradu amaierako lana egin nahi duten karrera zientifikoetako ikasleei bereziki interesatuko zaizkien saioak barne hartuko ditu ikastaroak.

**Iraupena:** 75 ordu (3 ECTS kreditu).

**1. edizioa: 2021/10/08-2021/12/17**

Informazio gehiago



# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Irakasleentzako prestakuntza

***ONLINEKO IKASTAROA: Iraunkortasunerako Hezkuntzaren gaitasunak unibertsitate-ikasketetan zelan integratu?***

Norentzat: euren irakasgaietan garapen jasangarrirako hezkuntza –GJHa– txertatzeko konpromisoa duten irakasleentzat.

Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren FOPU programaren esparruko ikasturte honen hirugarren edizioa 2021/06/14tik 2021/07/14ra egin da. Hainbat jakintza arlotako 25 irakaslek (%52 emakumek eta %48 gizonek) hartu dute parte. Parte-hartzaileek «oso balorazio ona» eta «balorazio bikaina» eman zioten ikastaroari.



Informazio gehiago

# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Bestelakoak (1)

### *«La meteorología incómoda del Sur de Europa»* webinarrak



Apirilaren 22an eta 29an.

**Helburua:** Webminar hauek Mediterraneo Mendebaldeko Arroko eurite eta berotze erregimena asaldatzen ari diren kutsatzaile atmosferikoen (berotegi efektuko gasen) ondorio klimatikoen eta lurzoruaren erabileren aldaketen ezagutzan sakontzeko interesa duten pertsonen topagunea izan dira.

**Hizlaria:** Millán M. Millán

Informazio gehiago

# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Bestelakoak (2)

### ELIKADURA IRAUNKORRARI buruzko ikastaroa



**Helburua:** Jaten duguna gara eta dieta iraunkorrari eusteak ingurumenarekiko dugun konpromisoa indartzen du. Ia denok modu osasuntsu eta orekatuan jaten ahalegintzen gara, baina ba al dakigu nola eragiten dion gure dietak gizarte-ongizateari eta planetaren osasunari?

**Datak:**
1. taldea: irailaren 16an, 23an, 27an, 29an eta urriaren 6an.
2. taldea: Azaroaren 15etik abenduaren 8ra

Informazio gehiago

# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Bestelakoak (3)

### Gazte Ekoliderrak - Trebatu Ekin izan







**Helburua:** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak eta Kutxa Ekoguneak bultzatutako programa. Prestakuntza- eta bizi-ibilbidea da, iraunkortasunean eta lidergo eraldatzailean espezializatua.

Informazio gehiago

# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Bestelakoak (4)

### Donostia Sustainability Forum




**Helburua:** UPV/EHUko Udako Ikastaroak Fundazioak sortutako ekimena da, iraunkortasunaren diziplinarteko tratamendurako, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik.

Zuzendaritzak ekimena unibertsitate-komunitateari aurkezten parte hartu du.

[Informazio gehiago]

# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Bestelakoak (5)

**Webinar "*Cambio Climático: ¿Qué es y qué podemos hacer nosotros/as para combatirlo?*"**




Martxoaren 24an egin zen.

**Helburua:** Zer da berotze globala eta berotegi-efektua? Zer adierazten du karbono-aztarnak? Zertarako balio du? Klima-aldaketari banakako eskalan aurre egin dakioke? Nola?

**Hizlaria:** Manuel Pinilla, The Planet App sortzailea.

Informazio gehiago

# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Bestelakoak (6)

**Karbono Kartografia 2021: Estatuko gizartearen karbono aztarna ezaugarritzeko ekimena**




2021eko Karbono Kartografiaren proiektuaren esparruan egindako inkestak aukera ematen du makroazterketan parte hartzeko eta erabiltzailearen karbono-aztarna zein den eta planetaren alde zer egin dezakeen jakiteko.

Informazio gehiago

# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Bestelakoak (4)

**Tailerra: GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK: Badakizu zer diren GIHak?**

Apirilaren 20an egin zen, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan (Eibar).

**Helburua:** Tailerrean Nazio Batuen Erakundearen (NBE) garapen iraunkorreko helburuak landu ziren. Zer diren, helburuak nolakoak diren eta helburuek mailarekin duten lotura.

Informazio gehiago



# Unibertsitateko kideen eskura jartzea iraunkortasunaren arloko prestakuntza espazioak eta berrikuntza proiektuak garatzeko espazioak

## Iraunkortasunerako hezkuntza proiektuetan parte hartzea

Grupo 9 UNIVERSIDADES

ENLIGHT

ALLIANCE COPERNICUS
EUROPEAN NETWORK ON HIGHER EDUCATION FOR SUSTAINABLE DEVELOPMENT

UNITED NATIONS academic impact

REDS
RED ESPAÑOLA PARA EL DESARROLLO SOSTENIBLE

CRUE
Conferencia de Rectores de las Universidades Españolas

UE4SD

# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

## «Garapenerako lankidetzaren inguruko unibertsitate praktikak eta gradu amaierako lanak» programa

Osasun egoerak mugatu egin du nazioarteko mugikortasuna. Alabaina, 2021an helburu argi jakin batzuk lortzeko egin da lan: batetik, lankidetzaren eremuko praktikak kudeatzeko eta ikuskatzeko zeregina duten irakasle-ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen sarea indartzeko, eta bestetik, programa honen ebaluazioa egitea hegoaldeko herrialdeetako erakunde laguntzaile eta kideekin.

Informazio gehiago



# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

## Gaztenpatia programa

Aurreko programaren kasuan bezala, COVID-19aren hedapena saihesteko mugikortasun mugatua dela-eta, 2021a Gaztenpatia programan parte hartu nahi zuten irakasle eta ikasleei zuzendutako prestakuntza areagotzeko erabili da, baita programaren web plataforma bat martxan jartzeko ere: https://gaztenpatia.eus/es/




Gaztenpatia Euskal Fondoaren eta UPV/EHUren ekimena da, eta aukera ematen die unibertsitateko ikasleei euren praktikak –nola curriculumekoak hala borondatezkoak– eta gradu amaierako lanak egiteko, Euskal Fondoak Latinoamerikan dituen erakunde eta entitate bazkideek garatzen dituzten proiektuetan.

**Informazio gehiago**

# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

## Ikasleek erakundeetan boluntariotza jarduerak egiteko kudeaketak

BATEKIN
Gizarte Partaidetza
Participación Social

bolunta
boluntariotza eta gizarte-partaidetza
voluntariado y participación social

GIZALDE
GIPUZKOAKO BOLUNTARIOTZA

# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

Gizarte erakundeetan eta UPV/EHUren programa propioetan elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako jardueretarako hautazko kredituak aitortzeko protokoloa eguneratu da. Informazio gehiago

2021ean, elkartasun eta boluntariotza jarduerengatiko hautazko kredituak aitortzeko 198 eskabideri erantzun zitzaien (139 emakume, 56 gizon eta 3 pertsona ez-binario), eta guztira 539 kreditu onartu ziren.

2021eko ekainaren 8an, «***BATEGIN-Uda Solidarioa***» izenarekin, Bolunta Bizkaiko Boluntario Agentziak beste behin jarri zuen abian, aurreko urteotan bezala, uda garaian praktika solidarioa sustatzeko kanpaina bat.



# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

## Boluntario autokudeatuen ekimenak bultzatzea eta babestea

Boluntariotza autokudeatuaren programa bultzatu da nola unibertsitate eremuan hala gizarte erakundeetan jarduerak gauzatzeko; unibertsitate eremuko jarduerak edonorentzako dira, eta gizarte erakundeetakoak, ordea, erakundearen hartzaileei zuzenduta daude.

Horretarako, hainbat bideo egin eta zabaldu dira.

[Informazio gehiago]



# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

## Boluntariotza sustatzeko beste ekimen batzuk (1)




Irailaren 27tik urriaren 1era egin zen, eta ekimenak izan ziren hiru campusetan. Astea Euskadiko Boluntariotza Agentziek (Batekin, Bolunta eta Gizalde) antolatu dute, EAEko unibertsitateekin lankidetzan, tartean UPV/EHU, UNIKIDE programaren esparruan.

**Helburua:** Ikasleen solidaritatea eta parte-hartze soziala sustatzea, boluntariotzako erakundeek egiten duten lana ezagutu ahal izateko espazio bat eskainiz, eta haien unibertsitate-prestakuntza dauden programetako batean konpromiso soziala hartzearekin uztartzea planteatuz.

[Informazio gehiago]

# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

## Boluntariotza sustatzeko beste ekimen batzuk (2)

Elkartasunaren Europako Gorputza (EGAB) Europako Batzordearen programa bat da, eta EHUk bat egin du ekimenarekin.

**Helburua:** 18 eta 30 urte bitarteko pertsonei borondatezko lanetan eta elkartasun proiektuetan parte hartzeko aukera ematen die.

Horren berri emateko, Zuzendaritzak webinar bat antolatu zuen urriaren 7an.

Informazio gehiago



# Ikasleen parte hartzea sustatzea elkartasunezko eta garapenerako lankidetzako ekimenetan

## Boluntariotzari buruzko prestakuntza

***ONLINEKO IKASTAROA:*** ***Boluntariotzaren hastapenak. Prestakuntza gizarte eraldaketarako***

**Helburua:** Unibertsitate-komunitatearen esku jartzea boluntariotzaren eta gizarte-partaidetzaren ideia, kontzeptu eta esperientzien zerrenda, elkartasunaren esparrua, garatzen den testuingurua, parte hartzen duten eragileak eta definitzen duten ezaugarriak ezagut ditzan.

**Iraupena:** 12,5 ordu (0,5 ECTS kreditu). Eskuragarri urte osoan zehar.

**Parte-hartzaileak:** 154

**Arrakasta-tasa:** %50,6

Informazio gehiago



# UPV/EHUk errefuxiatuentzako laguntzaren alorrean hartutako konpromisoak garatzea

## Errefuxiatu eta asilo eskatzaileentzako arreta programa

### UPV/EHUK ARINGARRIRIK GABE DEFENDATZEN DITU NAZIOARTEKO BABESEKO EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ESKUBIDEAK




UPV/EHUk, 2015eko urriaren 1eko Gobernu Kontseiluan aho batez hartutako erabakiarekin bat etorriz, babes eta aterpe eske datozen pertsonen eskubideen alde agertu nahi du inolako aitzakiarik gabe. Akordio horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan errefuxiatuak artatzeko hainbat ekintza egiteko konpromisoa hartu zuen. Lau jarduketa ildotan banatzen dira:

1. Laguntza egoera akademikoa eta unibertsitatera sartzekoa erregularizatzeko prozesuan.
2. Laguntza unibertsitatearen esparruko premia bereziak betetzeko.
3. Sentsibilizazio eta eztabaidaren sustapena.
4. Laguntza ekonomiko eta materiala nazioarteko babesa jasotzen duten unibertsitate ikasleentzat, 20 000 euroko zuzkidura duen funts baten bidez.

Informazio gehiago

# UPV/EHUk errefuxiatuentzako laguntzaren alorrean hartutako konpromisoak garatzea

## Errefuxiatu eta asilo eskatzaileentzako arreta programa

**2020/21 ikasturtean**, Siriatik, Afganistandik, Errusiatik, Ukrainatik, Saharatik, Perutik, Kolonbiatik, Venezuelatik eta Nikaraguatik datozen eta nazioarteko babeseko egoeran dauden 21 laguni (% 33 emakumeak, % 67 gizonak) administrazio izapideak egiten lagundu zaie, unibertsitate ikasketak egin eta jarrai ditzaten; horrez gain, unibertsitate eremuan dituzten premiak asetzen lagundu zaie (ostaturako, mantenurako, garraiorako, materialetarako eta abarretarako laguntza ekonomikoak, etab.). Era berean, 4 laguni ostatua eta mantenua eman zaie UPV/EHUko ikastetxe nagusietan eta egoitzetan (denak gizonak).

**2021/22 ikasturtean**, Siriatik, Afganistandik, Saharatik, Nikaraguatik, Perutik, Kolonbiatik, El Salvadorretik eta Mauritaniatik datozen eta nazioarteko babeseko egoeran dauden 16 laguni (%19 emakumeak eta %81) administrazio izapideak egiten lagundu zaie unibertsitate ikasketak egin eta jarrai ditzaten; horien artean, 3 laguni (denak gizonak) ostatua eta mantenua eman zaizkie UPV/EHUko ikastetxe nagusietan eta egoitzetan.

# Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekin hitzarmenak sina daitezen sustatzea eta horiekiko lankidetza ikusaraztea

## Hitzarmenak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ihobe

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

leioako
ostalaritza eskola
escuela de hostelería
de leioa

kontsumoBIDE
KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

EUSKAL
FONDOA

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

# Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekin hitzarmenak sina daitezen sustatzea eta horiekiko lankidetza ikusaraztea

## Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekiko lankidetza ikusaraztea (1)

Gizarte konpromisoaren eta lankidetzaren arloko hainbat ekitaldi (eztabaidak, erakusketak, zineforumak) antolatu dira.

Nabarmentzekoa da **«Invisible express»** film laburren lehiaketa, Kultura Comunication Desarrollo (KCD) GGKEarekin elkarlanean antolatua, "*Gorroto delituak*" gaiari buruzkoa izan dena. 97 ikaslek hartu dute parte (%72 emakumeak eta %28 gizonak), batez ere Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatekoak.

**Palmaresa:**

Lehen sariaren irabazlea: Influere

Publikoaren sariaren irabazlea: Silencio

**Informazio gehiago**



# Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekin hitzarmenak sina daitezen sustatzea eta horiekiko lankidetza ikusaraztea

## Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekiko lankidetza ikusaraztea (2)

**ONLINE IKASTAROA: *Filtrorik gabeko selfie bat. Geure burua memoriatik eta alternatiben eraikuntzatik ezagutzea bat-bateko antzerkiaren bidez***



**Helburua:** Metodologia berritzaileak erabiliz, hala nola Antzerki Espontaneoa eta arte terapia, giza eskubideen, lurraldearen, ekofeminismoaren eta kulturartekotasunaren defentsan oinarritutako garapen ereduei buruzko ikastaroa.

Otsailaren 24tik apirilaren 30era garatua

**Parte-hartzaileak:** 20

[Informazio gehiago]

# Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekin hitzarmenak sina daitezen sustatzea eta horiekiko lankidetza ikusaraztea

## Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekiko lankidetza ikusaraztea (2)

**Helburua:** Hegoaren garapenari buruzko Pentsamendu Kritikoak proiektuaren esparruan sortutako ikaskuntzak zabaltzea, garapenarekin kritikoak diren hiru ikuspegiren inguruan: garapen ondokoa eta beste alternatiba praktiko batzuk; feminismoak beste batzuk eta bizitzaren iraunkortasuna; iraunkortasun ekologikoa.

Otsailaren 15etik apirilaren 11ra.

**Parte-hartzaileak:** 40

Informazio gehiago

**EmancipAcción: teorías y prácticas críticas para otros mundos posibles**



# Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekin hitzarmenak sina daitezen sustatzea eta horiekiko lankidetza ikusaraztea

## Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekiko lankidetza ikusaraztea (3)

**Mintzaldia YAYO HERRERO: Pentsamendu ekofeministaren eraikuntza kolektiboa**




**2021ko Oinarrizko Errentari buruzko 2. Mintegia**




**Egoera ahulean dauden Gazte Migranteak: Mentoretza soziala eta akonpainamendua**



# Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekin hitzarmenak sina daitezen sustatzea eta horiekiko lankidetza ikusaraztea

## Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekiko lankidetza ikusaraztea (4)

**Ausartu galdetzera: babesari buruzko elkarrizketak**




**Indarkeria matxisten aurkako borroka nazioarteko begirada batetik**



**Txostenaren aurkezpena eta sozializazioa: Susmopean dauden unibertsitateak, estatuak ikasle, irakasle eta sindikalistei egindako errepresioa Kolonbian 2000-2019**



# Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekin hitzarmenak sina daitezen sustatzea eta horiekiko lankidetza ikusaraztea

## Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekiko lankidetza ikusaraztea (5)

**Emakumea eta lankidetza osasunaren arloan**




**MEMORIA ERAIKIZ. Indarkeria matxistaren biktimak izan eta bizirik dirauten emakumeen ahotsak jasotzen dituen ikuskizuna**



**Online Foroa «Unibertsitatea-Gizartea harremana birpentsatuz»**

emaús FUNDACIÓN SOCIAL

# Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekin hitzarmenak sina daitezen sustatzea eta horiekiko lankidetza ikusaraztea

## Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekiko lankidetza ikusaraztea (6)

**Habanako bake akordioak ezartzea eta Kolonbiako gizarte mugimendua babestea**




**Mintzaldia: Okupatutako adimenak: hezkuntzaren kolonizazioa Palestinan**



# Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekin hitzarmenak sina daitezen sustatzea eta horiekiko lankidetza ikusaraztea

## Jasangarritasunaren eta garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeekiko lankidetza ikusaraztea (7)

**Kolonbia-Euskadi mintegira. Akademia kritikoa, gizateriaren aurkako krimenak eta bake-pedagogiak (2021-2022)**




**Txostenaren aurkezpena eta sozializazioa: Susmopean dauden unibertsitateak, estatuak ikasle, irakasle eta sindikalistei egindako errepresioa Kolonbian 2000-2019**



# Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitatearen eguneroko zereginean txertatzea

UPV/EHUk, garapen iraunkorrerako 2030 Agenda ezartzearen aldeko apustuan, 2019an, EHUagenda 2030 garapen iraunkorrari ekin eta UPV/EHUren garapen iraunkorreko adierazleen taula onetsi zituen. 2020/21 ikasturteko adierazleen panela kalkulatu da eta horren **bilakaera** aztertu da.




Egia da lau urteko neurketak ez direla nahikoak UPV/EHUn GJHen betearazpenak izan duen bilakaerari buruzko ondorio esanguratsuak ateratzeko, eta halaber, Covid-19ak eragindako pandemiak unibertsitate jardueran aldaketa esanguratsuak ekarri dituela, baina **joera positibo bat nabari da iraunkortasunaren aldeko sustapenean**.

Oro har, hobekuntza nabarmenak ikusten dira honako hauekin lotutako adierazleetan: kalitatezko hezkuntza (4. GIHa), genero berdintasuna (5. GIHa), energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea (7. GIHa), lan duina eta hazkunde ekonomikoa (8. GIHa), industria, berrikuntza eta azpiegitura (9. GIHa), desberdintasunen murrizketa (10. GIHa) eta helburuak lortzeko aliantzak (17. GIHa).

# Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitatearen eguneroko zereginean txertatzea

UPV/EHUk GJHei egiten dien ekarpenari 58 adierazleren panel baten bidez jarraipena egiteaz gain, ekoizpen zientifikoak EHUagenda 2030en jasotako 12 + 1 GJHei egiten dien ekarpena ere aztertzen da urtero. Web of Science (WOS) eta SCOPUS aldizkarietan argitaratutako artikulu zientifikoen bidez egiten da zenbaketa.

Guztira, 2017.-2021. urteetan 1767 artikulu argitaratu dira. **2021ean 503 artikulu argitaratu dira; horrek esan nahi du azken urteotan 75 artikuluko igoera egon dela**.

Ekoizpen zientifiko handiena izan duten GJHak hauek izan dira: 3. GJHa (osasuna eta ongizatea), 7. GJHa (energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea) eta 12. GIHa (ekoizpen eta kontsumo arduratsua) dira; halaber, Europa Jasangarrirako Europako Batzordearen 2030eko ildo estrategikoei jarraikitzen diete hein handi batean.

Informazio gehiago

# Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitatearen eguneroko zereginean txertatzea

**UPV/EHUko ikasleen IV. Biltzarra**k,

«*Gure Gradu Amaierako Lanek (GrAL) mundua aldatzeko balio dute*» izenarekin, erreferente izan nahi du datozen ikasturteetan, eta 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburuen inguruan graduko ikasleek egindako ikerlanak ikusarazi eta aintzatetsi nahi izan ditu.

**116 komunikazio proposamen** jaso ziren: 48 Gizarte eta Lege Zientzietan, 26 Ingeniaritza eta Arkitekturan, 23 Osasun Zientzietan, 13 Arte eta Humanitateetan eta 7 Zientzietan; 47 gradu desberdinetakoak izan ziren proposamenak. Parte hartzaileetatik, %74 emakumeak ziren, eta %28 gizonak.

2030 Agendaren **Ardatz tematiko bakoitzeko bi sari** banatu ziren (ardatzak: Pertsonak; Planeta; Oparotasuna; eta Bakea eta Aliantzak) eta **sari espezifiko** bat **COVID-19aren ondorengo** egoerari egindako ekarpen esanguratsuenari.



# Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitatearen eguneroko zereginean txertatzea

## GASTEIZKO UDALAREN ITUN BERDEARI OHOREZKO AIPAMENA

Gasteizko Udalak saria eman dio UPV/EHUri Ekonomia berde eta zirkularrarekin konprometitutako erakundeen Itun Berdearen X. elkarretaratzean

Saria Manoli Igartua UPV/EHUko Arabako Campuseko errektoreordeak eta Estíbaliz Sáez de Camara EHUko Iraunkortasunaren eta Gizarte Konpromisoaren arloko zuzendariak jaso zuten.



# Nazio Batuen 2030 Agenda unibertsitatearen eguneroko zereginean txertatzea

## ARABAKO AKADEMIAREN ETA INDUSTRIAREN ARTEKO ALIANTZAK EHUNTZEN LURRALDEAREN GARAPEN IRAUNKORRERAKO

2021eko urriaren 27an jardunaldi bat antolatu zen Arabako Campusean, Kudeaketa Aurreratuaren 27. Europako Astearen barruan, Arabako industriak eta UPV/EHUk gauzatutako ekintza eredugarri eta garrantzitsuak ikusarazteko.




[Informazio gehiago]()

# Iraunkortasunari buruzko jardunaldietan parte hartzea eta EHUagenda 2030 ikusaraztea

2021ean «EHUagenda 2030 garapen iraunkorrari ekin» delakoa aurkeztu da.

- **«Impacto de la covid-19 en la estrategia andaluza de desarrollo sostenible 2030»** delakoaren emaitzak aurkezteko jardunaldia, Granadako Unibertsitateak antolatua
- **«¿Cómo contribuir a los Objetivos de Desarrollo Sostenible desde la Administración Pública?» jardunaldiak UNED**ek antolatutako jardunaldi horien bidez, sarrera bat egin nahi da Administrazio Publikoek 2030 Agendaren aurrean duten zereginari buruz eta 2030 Agenda lerrokatzeko eta integratzeko baliabide nagusiei buruz, nazioartean ez ezik, nazio mailan ere bai (Espainiako Plan Nazionala, Hiri Agenda, etab.). Informazio gehiago
- **BBK kunaren mintzaldien zikloa**.
- **Kudeaketa Aurreraturako Euskal Erakundeen Bilkura (QEPEA)**, «Objetivos de Desarrollo Sostenible» izenekoa (Garapen Jasangarrirako Helburuak) eta Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astearen esparruan egina. Informazio gehiago:
- Murtziako Unibertsitateko eta Cartagenako Unibertsitate Politeknikoko doktorego jardunaldiak.

# UPV/EHUren prentsa oharrak

- UPV/EHUko ikasleak, Ukrainarekin
- Iraunkortasunari buruz hitz egiterakoan kontuan hartzen diren kontzeptuak
- Helburua: 1000 tona $CO_2$ gutxiago emititzea
- Azterlan batean Gipuzkoako Campuseko lurzoruaren eta sedimentuen ingurumen kalitatea aztertu da
- ENLIGHT aliantzaren unibertsitateetan jasangarritasun handiagoa lortzeko bidean
- Gasteizko Udalak UPV/EHU saritu du
- Ikasleen Kongresua bere historiako parte-hartzerik handienarekin sendotu da
- Zure osasunagatik, mugi zaitez modu jasangarrian
- Ondoez psikosozialaren prebentzioa unibertsitate arloan
- Ekainaren hasieran, Green Week izango da UPV/EHUn, jasangarritasunari eta ingurumenari buruzko zientzia-dibulgazioko astea
- Garapen Jasangarrirako Helburuei UPV/EHUk egindako ekarpen zientifikoa gorantz doa
- Maskarak biltzea Gipuzkoako Campusean birziklatzeko
- Ez dezagun klima aldaketa ahaztu

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA

CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

